


# LOIDIRI HONDARRIBITIK

## Txomin Sagarzazu

Agur eta ohore Jose Antonio Loidi errenteriar irundartu ospetsuari hil eta urtebetera. Zendu aurretik egiteak neurritz goitiko laudorioaren itxura hartu ohi du gehienetan gure artean, horregatik nago atseginxeago ote dugun hainbat euskaldunek isiltasun berdintzaileaz baliatzea bestelako nabarmen-ahaleginetan aritzea baino. Eta beranduxko izaten denean, berriz, trumilka metatu ohi zaizkigu esan gabekoak mihi-bihotzetan. Orduan saiatu ohi gara ditiranbo nekrologiko zuri-nahietan gure zorrak kitatze aldera.

*Bidal etxe* eta *etxadia* dira Loidiz ditudan lehenengo oihartzunak. Euskal Filologiako lehenengo kurtsoetan ikasle, oso deigarri gertatu zitzaizkidan Irungo kaleetan bide-seinale elebidunetan irakurritako hitzak: deigarri eta harrigarri; garbizaleak zirelakoan bainintzen orduan, Kintanaren *Hiztegia 80*-ren eraginpean edota gure mendeko zenbait euskaltzaleren hizkuntza-aukerez jasotako ikuspegi murriztailearen ondorioz. Nolatan ez zuten *postetxea* bezalako termino modernoa erabili? Loidik proposatua zelako, nonbait. Eta ni harritu.



Arg. Jankal Moxaile (Plazara)

*Plazara* aldizkari berritzai-lean ikusi nuen berriro ere Loidiren izena 1985etik 1992ra bitartean. Irungo toponimia zuen aztergai: itxuraldatutako terminoen kritika, gaskoi-jatorrien arakatzea, esanahia eta inguru hurbilarekiko lotura, gramatika-osagaien azterketa... Begien bistakoa zen euskaltzaletasuna ulertzeko moduak askotarikoak zirela aldizkari hartatik beretik hasita, eta horietako bati hizkuntza aztertzeke sena zerion.

*Hamabost egun Urgainen* da, zalantzarik gabe, Loidi abizena aipatu eta askori gogora datorkiguna. Egia da ikasle garaian euskal eleberrigintzaren historia motxa kontatzen zigutenean leku aipagarria eskaintzen ziotela, generoak eta euskara sueltoak irakurgarri bihurtzen baitzuten. Are irakurgarriago beste liburu batzuen aldean, gainera. Eta gaxteen irakasle, hizkuntza-gaitasun elbarriaren makulu gertatu zait aspaldiko urteetan, ezinbesteko irakurgai irakurterraza, tramaren konponbidea gora-behera.

Mugarri zabal horien tartekoa da idazki honen asmoa. Lehenbiziko pertsonan idatzia dut, hortaz, neunik Loidiz bildu ditudan oroitzapen zipristinduen zerrenda. Horretarako, andanan jarri ditut ñabardura deslaidak nortasun aberatsagoaren agergerri.

Hala ere, Loidi ezagutu, Hondarribiko *Bordari-Satarka* literatur lehiaketan ezagutu nuen, epaimahaikide gisa izan genituen lehenengo hitzaspertuetatik. Harreman zuzen laburrak, gainera, ordura arteko sentimendua osatzeko aukera eman zidan. Urduritasuna sumatu nuen lehenbizi, Martin Ugalde eta bera bezalako idazleekin ipuingintzaz aritzea handiegia baitzen gazte ausartegia-

rentzat. Txunditzea ere bai, ipuinak kalifikatzeko abiapuntu modura erabilitako irizpideak entzun eta gero. Errespetua, berriz, eztabaidan agertutako argudioengatik, eta batez ere, besteren iduriekiko erakutsitako begirune gardenagatik. Eta berak aldiro patxada helarazi zidan.

Lehiaketari esker elkarrengana bilduta eta otordu goxoa tarteko beste xehetasun batzuk jaso nituen. Ez-ohikoa iduritu zitzaidan adin horretako pertsona batengan, eta bereziki euskalgintzan ari zen batengan, informatika zaletasuna eta teknologiarako isuria, bai lehenengo ordenadoreak iritsi zitzaizkigunean, eta baita Interneten hedapenaren lehen urratsetan ere, webguneak prestatzeko beharra aipatzen baitzuen irribarre bixi eta begien dirdirarekin batera.

Gure aiekako kultur suspertzaile nekaezin eta bipilaren irudia ere gero eta handiago ageri zait, ezarian-ezarian. Horren araberakoa da, konparazio baterako, *El Bidasoa* aldizkari irundarrean 1950 inguruan idatzitako kazetari-lan zentsuratua. Izan ere, garai hartako euskarazko literatur agerpen murriztarekin batera, Real Uniónen partiduen kronika pareka argitaratu ondoan, hirugarrena galarazi baitzioten. Bistan da, euskara ezin zen hizkuntza normal gisa erabili, noski. Zentzu berekoak dira Irungo ikastolaren sortzaileetako bat izatea edo 1983an Irungo Euskal Jaien mendeurrena izana zela eta, Abbadiek eta ondokoek eragindako mugimendua aztertuz idatzitako liburua.

Alabaina, Irungo *Luis de Urantz Kultur Taldean* egindako lan eskergea eta zuen itzal handia bestelakoei gaietzen zaizkielakoan nago. Bertako buru hasiera-hasieratik, adierazpen ofizial eta bestelakoez gain, dozenatik gora ikerlan argitaratu zituen 1984a ezkerotik *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkarian*. Etimologia (*Irun* eta *Hondarribia* izenak, Lacoizquetaren hiztegia), euskara Irunen (1936 ondoko egoera) hizkuntza-azterketa (Irungo dokumentazioko grafia, gaztelaniazko hitzak lapurteran) eta zientzia (Bidasoa irrioko ura, kolera morbo gaisotasuna) landu zituen.

Eta beste kontu bat ere azpimarratu nahi nuke: Loidi inguruko errealitatearen behatzaile eta aztertzaile ez ezik, zatiketaren aurrean zubigintzan aritzeko modukoa ere izan delakoan nago. Afalondoko pasadizo xume batek eskaini zidan joera horren lehen zantzua: EAJ eta EAKo zinegotzi gazte parearekin ari ginela, hor non galdetzen dien ahotsa altxatu gabe, baina bete-betean, ea zerk bereizten dituen. Maliziarik gabeko edadetuaren galderari maliziarik gabeko gaxteen erantzunak hartu zion segida. Eta aurreko baieztapenaren sendogarri 1997ko abuztuan Irungo Alardearen sesioaren irtenbide gisa bere izenean idatzitako lana. Proposamenari eztabaida arrazoitu eta patxadazkoaren beharra zerion eta adostasun-nahia, agian beste zenbaiti ez dariena.

Ez da harritzekoa, beraz, hil eta gero Irunen utzitako arrastoa nolanhikoa ez izatea. Aberatsa eta emankorra izan dela adierazteko hona azkeneko adibideak: Irungo Udalak Loidik jorratutako arloetan egindako beka-deialdia, udal berak kale berri bati Loidiren izena jartzeko erabakia eta *Luis de Urantz Kultur Taldeak* bere omenez deitutako ikerlanen lehiaketa. Ez dirudite, ez, hutsaren hurrengo.